

## KOSMODISEAREN

### LEHEN ETAPA HONETAN

## LAU IDEIA IRABAZLE EGON DIRA

Kosmodisea Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak abian jarritako ekimen bat da, kultura ekintzailea eta kultura digitala bultzatzea helburua duena. Web euskarria duen jolas interaktibo eta kooperatiboa da, eta unibertsitatekoak ez diren Gipuzkoako hezkuntza-maila guztiei zuzendua dago, hau da, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Heziketa Zikloei. Proiektuan, guztira, 42 ikastetxe parte hartzen ari dira, 114 laguntzaile/irakasle eta 1.300 ikasle baino gehiago. Kosmodisea azaroaren 20an hasi zen, eta fase ezberdinetan burutzen ari da. "Ideia-jasa" deritzon fasearekin hasi zen. Fase horretan ikasleek, taldeka, ideiak bota eta gehien gustatzen zaizkien horien aldeko botoa eman dute, proiektuan zehar horiekin lan egiteko. Hona hemen zentro eta ideia irabazleak.



**LEHEN HEZKUNTZA.** San Benito Ikastola (Lazkao): **INGURUMENA**

**HOBETZEKO PROIEKTU BAT**



**DBH.** Arizmendi-Nuestra Señora de Dorleta (Eskoriatza): **PERTSONEN**

**ETA IKASTETXEEN ARTEKO HARREMANA SUSTATZEN**



**BATXILERGOA.** Arizmendi-Nuestra Señora de Dorleta (Eskoriatza):

**UNEAN EGUNERATUTAKO EGUNKARIAK**



**HEZIKETA ZIKLOAK.** CEIMPRO (Donostia): **"ENTZUTEKO"**

**BETAURREKOAK**



**KOSMODISEA PROGRAMARAKO SARRERA**

**LEHEN HEZKUNTZAKO "HASI ETA HAZI" PROGRAMARI DAGOKION HEZKUNTZA-MATERIALA GIPUZKOAKO ZENTRO GUZTIETARA BANATUKO DA.**



Gipuzkoako ikastetxeak lehen-hezkuntzarako "Hasi eta Hazi" programari dagokion materiala ari dira jasotzen. Heziketa proposamen bat da, eta kultura ekintzailearekin lotutako balioak sustatu eta bultzatu nahi ditu. Helburu hori erdiesteko, "Hasi eta Hazi" multimedia-tresna multzo bat proposatzen du, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan irakasle eta ikasleek, guztiek batera, erabil ditzaten. Une hauetan bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako "Hasi eta Hazi" materialak ari dira prestatzen.